

## Sasi guztien gainetik

Sasi guztien gainetik, eta hodei guztien azpitik. Hala ibiltzen zen Teoren amona Petra mutikoa baserrira joaten zenetan, edo hala iruditzen zitzaion gaztetxoari, behinik behin. Asteazken zeharreko porlana eta klaxon-zaratak, astebukaeretakoa txorrotxio-kantu eta egurats bihurtzen ziren Teorentzat eta haren amarentzat. Eguneroko lan txikiak egitera eramaten zuen amona Petrak, eta amona-biloben arteko galdera-erantzunen joan-etorrian pasatzen zuten eguna.

Ama baino lehen jaiki zen goiz hartan Teo. 09:12ak ziren amaren sakelako telefonoan; amonak sukaldean zuen erlojuan, aldiz, zortziak eta laurden ziren. Udako ordutegira aldatu gabe zuen erlojua amonak, nahiz eta aspaldi, txoriekin batera-edo, jaikia zen. Ez zuen ordurik aldatzen, denborak erlojuak ere bere onera ekartzen zituela esan ohi zuen.

Txikia sukaldera jaitsi orduko, mahaian zuen kafesnea zopekin. Baserrira joaten zenean baizik ez zuen horrela gosaltzen, etxeako kafesneak ez baitzuen baserrikoarekin zerikusirik.

- *Teo, gaur nirekin etorri behar duk! Lan txiki bat egin behar diagu!*

Ez zuen gosaritarako denbora askorik hartu gure mutilak, eta kafesnearen azken zurrutada zintzurtean behera zuela hurreratu zitzaion amona Petrari.

- *Goiko bordetara joan behar diagu, ea nola dauden ikusi eta, bide batez, ongari pixka bat ekartzera, zer diok? Aitzur txikia eta zaku bat beharko dizkiagu.*

Abiatu ziren amona eta biloba egun hartako lan txikia egitera. Eraman zuen amonak Laharregiko pagadietatik barna. Bertan, Teok goroldioz jantziriko pago motz zaharrak ikusi zituen. Amonak pago-lizarren eta pago motzen arteko aldea azaldu zion. Olentzero bezalako ikazkinak ziren pago motz horien eragile, arbola osorik bota orde, behar zituzten adarrak mozten baitzizkieten pago haiei, egur harekin txondorrak egin eta ikatza egiteko; eta, ondorioz, ez ziren goraka hazten.

Laharregiko pagadi zaharra atzean utzi ahala, orbelezko bidean, gaztainondo zahar baten parera iritsi ziren. Gaztainak gaixorik zeudela esan zion amona Petrak, aspaldi urrituta zeudela. Bide bazterreko hark *kipula* zuen, eta gure mutila barrura sartu zen jolas egin nahian. Egur-usainak inguratuta zela, amonak azkonarraren eta trikuaren

ipuina kontatu zion. Nola bidali zuen trikuak azkonarra gaztaina-ipurdi batetik euria zarra-zarra ari zuen gau batean. Erne entzuten zion mutilak amonari; begiak dir-dir.

Txaramuinoko bordetara bidean, lahar artetik masustak biltzen zizkion amonak bilobari. Laharrak, arantzez gain, lorea ere ematen zuela esaten zion; neurritz kanpoko *uzteak* eta *usteak* zekartela, aldiz, sasia.

Txaramuinoko bordara ailegatu ziren. Amona sartu zen barrura, eta pauso batzuk ematea nahiko izan zitzaion zenbat simaur zegoen jakiteko. Zakua irekitzeko esan zion Teori. Aitzur txikia hartu, simaurra harrotu, eta bete zuen zakua erdiraino.

- *Nola eramango dugu zakua etxera, amona?*

*Tarraka!* erantzun zion amona Petrak. Borda inguruko zuhaitzetatik eroritako hiru-bat adar ihartu hartu zituen, eta Teori zaman eramango zutela esan zion. Hala, simaur-zakua adarretan jarri eta eraman zuten arrastaka.

Txaramuinoko bordetatik, Sasinbarrena baserrirako bidea hartu zuten. Ez ziren lehengo bidetik itzuli. Amona Petrak Sasiturrik zenbat ur zuen ikusi nahi zuen. Garai batean, ur-emari handia zuen iturria omen zen, baina, azkenaldian, inguruan egin zituzten zulaketek eta leherketa neurtuek lehortu egin omen zuten.

Iritsi ziren Sasiturri parera. Ez zuen urik, lehortu zen. Eta lehortu ziren amona Petraren begiak ere. Sumatu zuen Teok amonaren tristura. Iturburutik ikusten zen Sasieta baserriaren hondarrak erakutsi zizkion Teori. Garai batean etxe dotorea izandakoa, egun, bi zulo beltz handi - bi tunel handi - elkartzeko egindako porlanezko zubi erraldoi baten hankapean sasiak eta laharrak jandako horma-puska bihurtu zen. Amonak sasi-jakintsu eta sasi-letratuak aipatu zituen; haiek emandako sasi-aginduen ondorioz hustu zela Sasieta; sasi-egiek eta gezur erdiek eraitsi zutela etxe hura. Teok ez zion gauza handirik ulertu, baina Sasieta horma-hondar eta sasi artean arantza bat baino gehiago zeudela konturatu zen. Begiak sasitu zitzaizkion amona Petrari.

Ekin zioten berriz ere etxerako bideari; heldu zion Teok zamari, eta tarraka eraman zituen Sasinbarrena loratuko zuten ongarria eta berotzeko egur iharrak. Atarian zituzten loreentzako, eta baratze lurrarentzako ongarririk onena omen zen zaman zekartena. Ulertu zuen Teok amona Petra zein sasiren gainetik ibiltzen zen hegan; sasiak zein neurritan ematen duen fruitua, eta zein sasik, neurtuta ere, ez duen

lorerik ematen.

**Zutituz**